

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

**Data: 2021eko ekainaren 9a, asteazkena.**

**Ordua: 20:00.**

2021eko uztailaren 14ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia) familia-arrazoiengatik.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Saioa alde zuzenetik eta arauzko publikitatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

#### Gai-zerrenda

1. Onestea 2021eko maiatzaren 12ko aurreko ohiko bilkurako akta.
  2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
  3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
  4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
  5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
  6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**
    - 6.1. EH Bilduren mozioa, Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea betetzeko Udalek behar duten finantzaketaren gainekoa, eta EAJ-PNV alderdiaren zuzenketa.
    - 6.2. Osakidetzari eskaintzea Sindikatu Etxea izeneko eraikinaren lagapena jabetzan, eraisteko baimenarekin, Oionen osasun zentro berri eraikitze aldera.
    - 6.3. Oion udalerrian egoitza soziala daukaten autonomoei eta mikroenpresei laguntzak arautzea.
    - 6.4. 2021eko Aurrekontu Orokorren 3/2021 aurrekontu aldaketa.
- Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira.

#### 1. Onestea 2021eko maiatzaren 12ko aurreko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak zinegotziak aktari oharrak egitera gonbidatu ditu.

Ez da inolako adierazpenik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2021eko maiatzaren 12ko aurreko ohiko bilkurako akta, egindako oharrekin.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

## **2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.**

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 92/2021 eta 104/2021 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

- 3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.**
- 4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
- 5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.**
- 6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**

### **6.1 EH Bilduren mozioa, Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea betetzeko Udalek behar duten finantzaketaren gainekoa, eta EAJ-PNV alderdiaren zuzenketa.**

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Eusko Jaurlaritzak “Gauzatu” programa jarriko du abian, besteak beste, udalei diruz laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak ezarritako energia-planei dagozkien beharrianetan. Programa horrekin, Eusko Jaurlaritzak udalen esku 100 milioi jarriko ditu bi formularen bidez:

Alde batetik, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) udaberri honetan abian jarriko duen programa da; 10 milioi euroko dirulaguntzekin udalek eta tokiko erakundeek udalerrri bakoitzeko “energia-osasunari” buruz auditoretzak egin ditzaten.

Bestetik, “0” intereseko finantzaketa-lerroa, Finantzen Euskal Institutuak kudeatutakoa, udal-auditoretzetan adierazten diren ekintzen inbertsioei aurre egin ahal izateko, eta energia-efizientzia hobetzera eta energia garbien kontsumora bideratuta egongo dira.

Datorren hamarkadan udalek aurrera eramango dituzten jasangarritasun-proiektu eta -politikak erabakigarriak izango dira ingurumena babesteko eta klima-aldaketaren kontra borrokatzeko. Zentzu horretan, 4/2019 Legeak udalentsako betebeharrak jasotzen ditu (besteak beste, instalazioen inbentarioa egin eta horien energia-kontsumoa adierazi; eraikin eta instalazio guztiek energia elektrikoaren kontadorea izan dezatela; 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa daukaten eraikinek dagokien energia-azterketa izan dezatela; urte anitzetarako energia-planak diseinatu daitezela; administrazio-titulartasuneko eraikin guztien energia-ziurtagiria izan dezatela; mugikortasun-plana izan dezatela eta energia-kontsumoa murriz dezatela).

Gainera, COVID 19aren pandemiak udal-finantzaketa asko murriztu du, eta udal batzuek zailtasunak izango dituzte jasangarritasun-politika indartsuak garatu ahal izateko; beste batzuek ez dute gaitasun nahikorik izango gai horretan aurreikusita dituzten proiektuak egiteko; eta baliteke udal batzuek mailegurik ez jasotzea ere.

Mozioak proposatzen du Eusko Jaurlaritzari eskatzea 2021 ekitaldirako Gauzatu programako dirulaguntzen zenbatekoa areagotzeko, gutxienez 75 milioi eurotaraino. Helburua da udalek Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legeak eta programek eta lan-lerroek ezartzen dituen betebeharrak bete ahal izatea.

Lekeition, badakigu Bizkaia dela, baina Zigoitian ere EH BILDU eta EAJ-PNVren transakzioa hitzartu dugu. Horregatik eskaini genizuen transakzionatutakoa.

Alkate jn.: EH Bilduk mozioa aurkeztzen duen bakoitzean, gure udal-taldeak zuzenketa aurkeztuko du. Eta alderdiarekin transakzionatzeko aukera komentatu dugu eta ez egitea erabaki dugu.

Beloqui Unzurrunzaga jn. (PP): Uste dugu erabaki bat hartu baino lehen, energia-azterketa egin behar dela.

Gamarra López-Brea jn. (PSE-EE PSOE): Egin dadila behingoz azterketa.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Zuzenketa aurka bozkatuko dugu. Aurreikusita dauden hamar milioirekin ezin izango da ezer egin.

EAJ-PNVk EH Bildu Oionen mozioari egindako zuzenketa bozkatu da, Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea betetzeko udalek behar duten finantzaketari buruzkoa. Zuzenketa onesten bada, mozioa bertan behera geldituko da eta ez da bozkatuko.

Aldeko botoak 4 (lau): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

4 (lau) abstentzio: Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Aurkako 2 (bi) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion).

Zuzenketa onetsi da eta mozioa bertan behera gelditu da. Onetsitako mozioa osorik transkribatu da: EAJ-PNV taldearen zuzenketa EH Bilduren mozioari, onetsitako Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea betetzeko udalek behar duten finantzaketari buruzkoa.

#### Zioen azalpena

- Eusko Jaurlaritzak hamarkadak daramatza energia-efizientziako planak eta energia berriztagarriak sustatzeko planak garatzen. 2021 ekitaldian, lan hori modu esponentzian hazi da, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea sustatu ondoren. Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro jarriko ditu udalen eta tokiko erakundeen esku; lege horretako betebeharrak betetzera bideratutako proiektuak erdiesteko asmoarekin.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea betetzea. Errealitatea eskatzen duenera egokitzeak inbertsoreen ahalegin esanguratsua ekarriko du tokiko erakundeen aldetik; izan ere, COVID19aren pandemiaren egoera dela-eta garai bereziki zailak dira.
- Eusko Jaurlaritzak aurtun lankidetzeta-formula bi artikulatu ditu 2030 urtea helburu hartuta jasangarritasun energetikoaren adierazleak hobetzeko erakunde publiko guztiek aurre egin behar dieten erronkak lortzeko:
  - I. Energiaren Euskal Erakundeak 2021 honetan 10 milioi euroko dirulaguntza-programa aktibatuko du, udalek eta tokiko erakundeek dagozkien auditoretzak egiteko udalerrien “energia-osasunaren” egoeraren inguruan.
  - II. Energiaren Euskal Erakundeak 0 intereseko finantzaketa-lerroa aktibatuko du auditoretzetan aurreikusten diren ekintzen inbertsioei aurre egiteko. Finantzaketa-lerro horrek, “Gauzatu energia”, 90 milioi euroko hornidura du.

Aipatutako dirulaguntza eta finantzaketa-lerroak dagoeneko badauden beste lerro batzuek indartzen dituzte; energia-efizientziaren eta energia berriztagarrien sustapenaren barruan daude. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Energiaren Euskal Erakundeak garatzen dituzte:

- Energia-efizientzia duten etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programa: 25,1 milioi euro 2021-2022 ekitaldietarako.
- Garraio eta mugikortasun efizienteko inbertsioak: 1,9 milioi euro.
- Tokiko administrazioetan energia-efizientziako eta eguzki-termikoko inbertsioak: 1,4 milioi euro.
- Biomasaren energia-aprobetxamendua egiten duten instalazioetan inbertsioa: 1 milioi euro.
- Aprobetxamendu geotermikoko instalazioetan inbertsioak: 0,9 milioi euro.
- Norbere kontsumorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak: 5,7 milioi euro.
- MOVES III Plana (kargatzeko guneak, ibilgailu arinak erostea...): 18 milioi euro.

Eraldaketa sozioekonomiko eta energetiko handiek jarduketa estrategikoak eta jarduketa handiak eskatuko dituztela jakinda, esaterako proiektu txikiagoak eta tokikoagoak, Oyón-Oiongo Udaleko EAJ-PNV udal-taldeak honako ordezkatzeko zuzenketa hau aurkeztu dio EH Bildu taldeak

aurkeztutako mozioari, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen garapenarekin lotutakoari

Oyón-Oiongo Udalak hau erabaki du:

- 1) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzea susta dezan tokiko erakundeei lankidetzeta eta laguntza indartzeko zeregina; ahalik eta proiektu gehien berraktibatzeko asmoz.
- 2) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzea bermatzeko “Gauzatu energia” programara bideratutako baliabideak modu zuzenean hel daitezela euskal udalerrri guztietara eta nahikoak izan daitezela tokiko ekimenak sustatzeko.
- 3) Eusko Jaurlaritzari eskatzea energia berriztagarrien instalazio berrien aldeko apustua egiten jarraitzeko.
- 4) Hartutako erabakia dagozkien erakundeei helaraztea.

## **6.2 Osakidetzari eskaintzea Sindikatu Etxea izeneko eraikinaren lagapena jabetzan, eraisteko baimenarekin, Oionen osasun zentro berri eraikitze aldera.**

Alkate jn.: Batzordeen bilkuran jakinarazi zenez, Osakidetzak irizpidea aldatu du eta orain ez du interesik SAUR1 partzelan. Eskaintza alkatetzaren dekretu bidez egin dugu eta Eusko Jaurlaritzak berretsi digu ez dela beharrezkoa eskaintza errepikatzea.

Ebazpena transkribatu da:

Data: 2021eko maiatzaren 27a

Gaia: Osakidetzari eskaintzea Sindikatu Etxea izeneko eraikinaren lagapena jabetzan, eraisteko baimenarekin, Oionen osasun zentro berri eraikitze aldera.

Aurrekariak:

1. 2018tik Alkatetzak osasun-zentroko ordezkariarekin izandako elkarrizketetan adierazten da horretara esleitutako espazioa txiki gelditu dela egunero jasotzen duen kargari eta kontsultei dagokienez.
2. Aintzat hartu behar da Oiongo biztanleria urtez urte hazten dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasarik altuena duen udalerrietako bat dela. Beharrezkoa da gune komunean azalera handiagoa izatea, baita kontsulta eta horri lotutako lanetarako espazioa handiagotzea ere.
3. Sindikatu Etxe zaharra Foru kaleko 11. zenbakiko 1. poligonoko 328. partzelan dago, udalerriko ekipamenduen gune nagusiaren barruan.
4. Oyón-Oiongo Udala Sindikatu Etxea izeneko ondasunaren jabea da; 2015ean salerosketa bidez lortu zuen. Katastroko identifikazioa: 1. poligonoa, 328. partzela.
5. Ondasuna ez dago erabilera edo zerbitzu publiko bati lotuta. Ondare kalifikazioa duen ondasuna da eta egun erabili gabe dago.

Honako hau erabaki dut:

1. Osakidetzari eskaintzea Sindikatu Etxea izeneko eraikinaren lagapena jabetzan, eraisteko baimenarekin, Oionen osasun zentro berri eraikitze aldera.
2. Lagapen horren kontu ematea Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran.

Gamarra López-Brea jn. (PSE-EE PSOE): Aurrera eramatea espero dut. Beste partzela batzuei buruz hitz egin zelako.

Alkate jn.: Izapideak hasita daude, proiektua idazteko kontratazioaren lizitazio fasean daude. Espero dut orain proiektatzen den osasun zentro berria hamar urteren barruan txiki ez gelditzea.

### **6.3 Oion udalerrian egoitza soziala daukaten autonomoei eta mikroenpresei laguntzak arautzea.**

Aurrekariak:

- 1) Oion udalerrian egoitza soziala daukaten autonomoei eta mikroenpresei laguntzen oinarri arautzaileen proiektua.
- 2) Aplikatu beharreko araudia:
  - a. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta horren garapen Araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.
  - b. 2021eko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua, VI. kapitulua, 33., 34. eta 35. artikulua.
  - c. Osagarri gisa: 39/2015 Legea eta 2019-2021 Oyón-Oiongo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta beste edozein.
- 3) 2021eko ekainaren 2ko Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua eta Hirigintzako Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Oion udalerrian egoitza soziala daukaten autonomoei eta mikroenpresei laguntzen oinarri arautzaileen proiektua onestea.
2. Laguntzak emateko hautaketa-prozesua deitzea. Eskakerak aurkezteko epea 2021eko uztailaren 30ean (ostirala), 13:00etan, amaituko da.
3. Oinarriak osorik Udalen webgunean argitaratzea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

### **6.4 2021eko Aurrekontu Orokorren 3/2021 aurrekontu-aldaketa.**

Aurrekariak:

1. 2021eko maiatzaren 28ko alkatetzaren justifikazio-memoria.
2. 3/2021 aurrekontu-aldaketaren espedientea. Udalaguntza 2020 eta autonomoei eta mikroenpresei laguntzeko programa. Aurrekontu-aldaketa hori kreditu gehigarriko erregimenarekin bat dator.
3. Arabako Tokiko Erakunde Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 28. eta 34. artikulua eta 2019ko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauaren 13. artikulua aplikatuko dira.
4. 2021eko ekainaren 3ko Kontu-hartzailetzaren txostena dago.

Hau erabaki da:

1. Onestea aurrekontu-aldaketaren 3/2021 espedientea, Udalaguntza 2020 eta autonomoei eta mikroenpresei laguntzeko programa. Kreditu-aldaketaren zenbatekoa 372.752,86 euro dira eta sarrera eta gastuen egoeraren aldaketak espedientean zerrendatuta daude. Erreferentzia alfanumerikoa: PresuGen2021ModCred3.doc.
2. Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakunde Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Arauan ezarritako epeetan espedientea jendaurrean jartzea.
3. Alegaziorik aurkezten ez bada, onespren-erabakia behin betiko onartutzat hartzea. Alegazioak badaude, hilabete bateko (1) epean argitzea.

#### 4. Behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari espedientearen kontu ematea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

#### **Galde-eskeak**

Alkate jn.: une honetan ez dakigu nor irekiko dituen igerilekuak, ziuurenik Ociosporti egindako adjudikazioa UTE BPXportek errekurrituko baitu. Edonola ere, esnea emango da igerilekuaren eremuan.

Alkate jn.: atzo kontratazio-mahaia bildu zen eta udal-igerilekuetako taberna-kafetegiaren emakida Daniela Alexandra Dracheri adjudikatzea proposatu zuen; eskaintzarik onena aurkeztu du.

Alkate jn.: uretan zizareak agertu direla dioen gezurretako polemikaren inguruan esan nahi dut ez dagoela ezer. Ingurumen-osasunari (edateko uraren kalitatearen kontrolaren arduraduna) eta Arabako Errioxako Urkidetzari informazioa eskatu diet eta sareetatik zabaldu den gezurra da. Medikuek ez du esan txorrotako urik ez edateko. Kolitis kasuak badaude, urtaro aldaketatik izango dira.

Frías del Val and. (EH Bildu Oion): Garai inguruaren HHSen edukiontzien ondoan arratoiak eta sugeak ikusi dira.

Alkate jn.: arratoiak hiltzeko eta plagen aurka jarduteko kontrola dago. Galdetuko dugu. Arratoi bat badago eta hainbat pertsonak ikusten badute, horrek ez du esan nahi arratoi gehiago daudenik.

Alkate jn.: suhiltzaileek erretenetik eta Diputazio kaleko 10 zenbakiko kaleko balkoian egindako lanaren kontu eman du.

Alkate jn.: Kontu eman du Río Grandera isurtzen duen ibai batek hainbat tokitan gainezka egin duela eta gainezkatzearen ondorioz, hainbat partzelatan kalteak sortu direla, besteak beste, San Justo aisialdi-parkean (titularra Arabako Foru Aldundia da). Gainezka egiteko arrazoia da ez direla ibaiaren ibilgu kontserbatzeko, mantentzeko eta garbitzeko lanak egin. Oiongo udalerrian ibaien ibilguak mantentzeko eta garbitzeko lanak egiteko eskatu dugu. Eta gainezkatzeen esparruan ekiteko eskatu dugu. URAREN ibaien garbiketaren parte hartzeko Uraren Euskal Agentziaren irizpidea dela ibaiartzean landatzea, itzala egon dadin eta sasitza haz ez dadin.

Villanueva Gutiérrez jn. (Bildu Oion): Batzar Nagusiek mozio bat onetsi dute, bertan Aldundiari eskatzen zitzaion ekonomia-azterketa eta ordenantza bat egiten laguntzeko, eskatzen duten Tokiko Erakundeek hainbat instalazioren tokiko jabetza publikoaren aprobetxamenduagatik tasa bat arautu eta abian jartzeko. Hortaz, Udalari eskatzen diot Aldundiari eskatzeko ekonomia-azterketa eta ordenantza bat egin dezan hainbat instalazioren tokiko jabetza publikoaren aprobetxamenduagatik tasa bat arautu eta abian jar dadin.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:45ean (bilkura 20:00etan hasi zen, CCXXIX urteko ekainaren hogeita hiruan), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen 2021eko ekainaren 23an.

O.E. Alkatetza.

Udaleko idazkaria: